

2023/10/24 – 11:30

AZTERKETAREN KODEA: COE16

Especialidad: MANTENTZE-LANETAKO OFIZIAL ESPEZIALISTA (Elektrizitatea)

Gehienezko denbora: 45 minutu

Galderak: 30.

MODELO / EREDUA:	D
------------------	----------

JARRAIBIDEAK:

- Ez ireki koadernotxo hau esan arte. Orain, jarraitu jarraibide hauek irakurtzen.
- Idatzi: NANA eta LETRA, eta bete laukitxoak irakurketa optikorako.
- Idatzi: 1. abizena, 2. abizena, IZENA eta DATA.
- "AZTERKETA" atalean, idatzi goiko aldean agertzen den azterketa-kodea. **Egin ezean proba baliogabetua izango da.**
- Adierazi zure erantzun-orrian egokitu zaizun azterketa-eredua.
- Gogoratu:
 - 30 galdera, 4 erantzun-aukera dituztenak.
 - Baliozko aukera bakarra. Bat baino gehiago badago, orokorrena edo osatuena, enuntziatua "Hautatu enuntziatu FALTSUA" eskatzen da; kasu horretan, hiru egiazkoak izango dira eta ez dena markatu behar da, faltsua.
 - Zuzeneko puntuazioak: Asmatzea, 1,00 puntu, errorea, -0,33 puntu. Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak EZ dute penalizatzen.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ekitaldiko azken 5 minutuetan.
- Azterketa jasotzeko eskatu ahal izango da lehenengo 15 minutuak igarotakoan eta asistentzia identifikatzeko lanak amaitu ondoren.
- Eskatzen zaizunean, bereizi orri zuria eta erantzun-orriaren kopia horia. Zuria erakundeko langileei ematen zaie.
- Kopia horia eta jarraibide-orria bere esku geratuko dira.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

- 1. Nork du laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan benetako babes izateko eskubidea?**
 - a) Kontratu finkoa duten langileek bakarrik.
 - b) Langile guztiek, edozein kontratu mota dutela ere.
 - c) Jarduera arriskutsuak egiten dituzten langileek bakarrik.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.

- 2. Laneko arriskuak prebenitzeari dagokionez, zer informazio eman behar die enplegatzaileak langileei?**
 - a) Lantokian dauden arriskuen identifikazioa.
 - b) Aplikatu beharreko prebentzio- eta babes-neurriak.
 - c) Larrialdietan jarduteko modua.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

- 3. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak honako hau ezartzen du parte hartzeko eta ordezkatzeko eskubide gisa: Adierazi enuntziatu zuzena:**
 - a) Langileek enpresan parte hartzeko eskubidea dutela laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako gaietan.
 - b) Langileek enpresan parte hartzeko eskubidea dutela enpresa-politikarekin zerikusia duten gaietan.
 - c) Ordainsariekin zerikusia duten gaietan langileek enpresan parte hartzeko eskubidea dutela.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 4. Zer da bitarteko funtzionarioa?**
 - a) Funtzionario-izaera duena eta behin betiko bete arte behin-behineko lanpostu huts bat betetzen duena.
 - b) Aldi baterako lan-kontratudun langileak.
 - c) Funtzionario-izaera duena eta behin-behineko izaerarik ez duen lanpostu huts bat betetzen duena.
 - d) Funtzionario ez direnak.

5. Babes-ekipamendu bat erabili behar den baldintzak, bereziki, eraman behar den denborari dagokionez, honako hauen arabera zehaztuko dira:

- a) Arriskuaren larritasuna, arriskuarekiko esposizioaren denbora edo maiztasuna, lanpostuaren baldintzak, ekipoaren beraren prestazioak eta atsedenenaren kostua.
- b) Arriskuaren larritasuna, arriskuarekiko esposizioaren denbora edo maiztasuna, lanpostuaren baldintzak, ekipoaren beraren prestazioak eta ekipoa erabiltzetik eratorritako arrisku gehigarriak, saihestu ezin izan direnak.
- c) Arriskuaren larritasuna, arriskuarekiko esposizioaren denbora edo maiztasuna, lanpostuaren baldintzak, ekipoaren beraren prestazioak eta atsedenenaren kostua.
- d) Larritasuna, maiztasuna eta kostua.

6. Arnasketa babesteko ekipo iragazleek EZ dute balio hauen aurka babesteko:

- a) Aerosol solidoak edo likidoak
- b) Partikulak
- c) Gasak
- d) Erradiazio ionizatzaila

7. Oinetakoak (adibidez, zapatak, egoera jakin batzuetan eskalapoiak eta botak barne, behatzak babesteko punta-puntakoak izan daitezkeenak) EZ daude diseinatuta honako hauen aurka babesteko:

- a) Arrisku termikoak
- b) Arrisku kimikoak
- c) Arrisku elektrikoa
- d) Erradiazio ionizatzaila

8. Zarataren eraginpean egotea. Jasotako soinu-intentsitatean eragina duten faktoreak:

- a) Atazaren iraupena eta maiztasuna.
- b) Zarataren ezaugarriak (frekuentzia, errepikakortasuna)
- c) Lan-lokalaren baldintzak
- d) Aurreko guztiak

9. Zein da Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren helburu nagusia?

- a) Emakumeen diskriminazio positiboa sustatzea.
- b) Neurri-multzo integratu eta sistematikoa bat zehazteko plan gidaria izatea, Gasteizko herritarrek berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan baliatu ahal izan dezaten hirirako duten eskubidea.
- c) Udal-ekintza publikoa orientatzea, bultzatzen diren politikek berdintasunean eragin positiboa izan dezaten.
- d) Berdintasun-politiken subjektu politikoa arau heteronormatiboak zapalduko beste pertsona batzuetara zabaltzea.

10. Gasteizko Udalean, nork kudeatzen ditu zuzenean udal-zerbitzu eta -jarduerak?

- a) Alkateak.
- b) Udal kontzejuak.
- c) Tokiko Gobernu Batzarrak.
- d) Udal-zerbitzuek.

11. Erantzun hauetatik, zein da OKERRA?

- a) NBEak jarraipen programa bat behar du.
- b) NBEak jatorrian desagerrarazten du arriskua.
- c) Arriskutsua izan daiteke berez.
- d) Zenbat eta NBE gutxiago erabili behar, orduan eta txikiagoa da arriskua.

12. NBE-en erabilerari dagokionez:

- a) Erabili egingo dira arriskuarekiko esposizioaren maiztasuna edozein dela ere.
- b) NBEaren beraren prestazioak ez dira erabilera baldintzak.
- c) NBE bat baino gehiago erabili behar bada aldi berean, arriskua biderkatu egiten da.
- d) NBE baten erabilera ez da arriskuaren larritasunaren araberakoa.

13. Elementu hauetatik, zein ez da arnesaren atal bat?

- a) Erorikoen kontrako uztaia.
- b) Lanerako gerrikoa.
- c) Izterretako doigarria.
- d) Kaskoa.

14. Noiz erabiltzen dira esku-eskailerak?

- a) Iraupen laburreko lanetan.
- b) Iraupen luzeko lanetan.
- c) Iraupen ertaineko lanetan.
- d) Goi-tentsioko lanetan.

15. Zamak eskuz manipulatzek zein pisutatik aurrera izan ditzake arrisku ez onargarriak, batez ere bizkarraldean eta gerrialdean?

- a) 1 kg.
- b) 3 kg.
- c) 5 kg.
- d) 8 kg.

16. Zein ez da Elurteetarako Plana abian jartzeko faseetako bat?

- a) Lehen mailako larrialdia.
- b) Larrialdi aurrekoa.
- c) Bigarren mailako larrialdia.
- d) Hirugarren mailako larrialdia.

17. Etxejabeen erkidegoei eta dendariei gogoraraziko zaie:

- a) 010 telefonora deitu behar dutela beren fatxadan elurra dagoela abisatzeko.
- b) Beren etxebizitza eta lokaletan geratu behar direla larrialdiak iraun bitartean
- c) Beren eraikinen aurrealdeei dagozkien espaloiak eta hustubideak garbi edukitzeko betebeharra dutela; horretarako elur metak osatuko dituzte, oinezkoei eta ibilgailuei enbarazu egin gabe.
- d) Bat ere ez da zuzena.

18. Eraikinetan, zer korrante mota erabiltzen da instalazio elektrikoek funtziona dezaten?

- a) Behe tentsioko korrante zuzena.
- b) Behe tentsioko korrante alternoa.
- c) Erdi tentsioko korrante alternoa.
- d) Oso behe tentsioko korrante alternoa.

19. Espainian, zein da korrante alternoko sare elektrikoaren maiztasuna?

- a) 50 Hz.
- b) 60 Hz.
- c) 75 Hz.
- d) 90 Hz.

20. 842/2002 Errege Dekretuaren arabera, nolakoak izango dira tentsioak?

- a) 400 V-koak fasearen eta neutroaren artean, eta 230 V-koak fasearen eta lurraren artean.
- b) 380 V-koak faseen artean, eta 220 V-koak fasearen eta neutroaren artean.
- c) 400 V-koak fasearen eta lurraren artean, eta 230 V-koak neutroaren eta lurraren artean.
- d) 400 V-koak faseen artean, eta 230 V-koak fasearen eta neutroaren artean.

21. Zein izango da kableen kolorea zirkuitu trifasiko baten faseetarako?

- a) Marroia.
- b) Beltza.
- c) Grisa.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

22. Zirkuitu elektrikoetako kableen dimentsionamendua honen arabera egiten da:

- a) Intentsitatea.
- b) Tentsio-erortzea.
- c) Intentsitatea, tentsio-erortzea eta zirkuitulaburra.
- d) Intentsitatea eta tentsio-erortzea.

23. Korridore batean argiak instalatu behar ditugu. Piztu eta itzaltzeko bost puntu independente jarri behar ditugu, eta hiru argi puntu. Zer instalatu behar dugu, gutxienez?

- a) Hiru gurutzatze-kommutadore eta bi kommutadore simple.
- b) Bost kommutadore simple.
- c) Bost gurutzatze-kommutadore.
- d) Hiru kommutadore simple eta bi gurutzatze-kommutadore.

24. Unitate hauetatik, zein ez da potentzia elektrikoarena?

- a) Kilowatt-ordua.
- b) Voltamperea.
- c) Watta.
- d) Zaldi-potentzia.

25. Formula hauetako zein da Ohmen legea?

- a) $V = R / I$.
- b) $R = V \times I$.
- c) $I = V / R$.
- d) $R = I / V$.

26. Ba al du polaritatek kondentsadore elektrolitikoak?

- a) Ez.
- b) Bai.
- c) Kondentsadore elektrolitikoak ez dira existitzen.
- d) Polaritatez kargatzen dira, bata zein bestea.

27. Zertarako dira oso erabilgarriak hodi termoerrektratilak?

- a) Sabai aizunetan elektrizitate hariak jartzeko.
- b) Kable elektrikoak jartzeko paramentuetan sartutako gidari gisa.
- c) Elektronikan konektoreak babesteko, zinta isolatzailea modu garbi batean ordeztuz.
- d) Soinu kableek sortutako beroa arintzeko.

28. Hauetako zein ez da fusible mota bat?

- a) Plaketa-fusiblea.
- b) Zurtoin-fusiblea.
- c) Kartutxo-fusiblea.
- d) Tapoi-fusiblea.

29. Aparaturen batean edo instalazioaren punturen batean deribazio bat gertatuz gero instalazioa automatikoki deskonektatzen duen etengailuari, nola esaten zaio?

- a) Etengailu automatiko diferentziala (IAD).
- b) Potentzia kontrolatzeko etengailua (ICP).
- c) Etengailu automatiko txikiak (PIA).
- d) Potentziarako etengailu kontrolagailua (IPC).

30. Aipa itzazu bi osagai pasibo:

- a) Erresistentzia eta tentsio-iturria.
- b) Erresistentzia eta harila.
- c) Kondentsadorea eta korrante-iturria.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.